

Elkarrizketa hau Koldo Diaz Bizkarguenaga eta Txabi Landabidea Urresti ²⁰¹⁵⁻¹⁰⁻²⁷ Etzilarien artean izan genuen, hain zuzen ere inoiz, inola, nolabait, Etzi.pm|n zerbait argitaratzeko edo.

Azkenean, egunen joan zoroak eta twitterriko dinamikak berak (@theindezents bezalako jendea ezin baitugu ilunetan izan) eraman gaitu halako full disclosure bat egitera.

Utopia telesail britainiarra eta The Kingsman blockbuster amerikarraren alderaketa estilistiko-epistemologiko hau ezin atzeratuzkoa zen.



Gerra bat baitaukagu gure artean, eta Euskal Herriak merezi du jakitea non gauden. Grant Morrison gure eskoziar burusoil bizarroak Ikusezinetan galdetzen zuen bezala:

Which side are you on? Do you know yet?

OHAR OSO GARRANTZITSUA: SPOILER-ak nonahi.

Aspalditik genuen elkarrizketa honen beharra. Zehazki, gure istorioaren hasieratik.



Ekin genion. Momentu bereziaren urduritasuna nabaria zen: “zezakeela” idatzi nahi eta “zitekeela” asmatu.

“Utopia” telesailarekin engaiatu ginen. Twitterren eztabaidatzen hasi eta aurrez-aurre ezagutu ginenean mahai gainean jarri genuen lehen gaia izan zen: zer egingo zenuke? (Zertan ari garen ez badakizu, irakurketa telesailaren bi denboraldiak ikusi ondorengorako utzi beharko zenuke. Hori bultzatzeko, ez dugu “Utopia”ren kokapen bat egingo. Ez dago zergatik. ;-). Hilabeteak pasa ahala gaia ateratzen zen... Kingsman filma ikusi genuen arte. Berriz ere egoera apokaliptiko bera, baina kasu honetan zentzu autoparodiko batean eta ongia eta gaizkia berezita.



ETZI emango den egoera baten inguruan hitz egiteko, Etzipm baino hoberik ez zegoela pentsatu genuen eta horregatik, Twitter bidez gaiaren inguruan hitz egiten, eztabaidatzen eta filosofatzen hasi ginen. Hona gure emaitza.

(Litekeena da irakurri ostean hilketa selektiboak egitearen alde edo jaiotze-tasa oztopatzearen aldekoa izatea, hala bada, gure helburua lortu dugu □

Ongia eta gaizkia bereizten direnean zeinen erreza da gure bizitza...



... Baina, bizi errealean bezala, uztartuak agertzen direnean zeinen interesgarria da gure bizitza



Teoriatik praktikarako jauzia: zer egin? Nori? Zelan?

2015:10-27



Erabakiak hartzeko modua: elitea eta Herriaren arteko harremana



Legitimitate kualitatiboak ematen duen salbuespenaz



(Marxen mezua jasotzen dugu) Kontzientziaren garrantzia



Badirudi sistemak ezkerren diskurtsoa irensten duela



Gure Esku Dagoren mezua jaso dugu ere



Ea ba... saia gaitezen irtenbide bat bilatzen...



... ba ez. Ez dugu lortu...



... Ea ba. Bigarren saiakera...



 Ezta. Eta galdera aldatzen badugu? 2015-10-27



Galdera aldatuta ezta... Saia gaitezen beste perspektiba batetatik ulertzen



Galderak, galderak eta galderak.

Isiltasuna nagusi izan arte. Zure erantzuna behar dugu, [typography font="Cantarell" size="24" size_format="px"]ZER EGINGO ZENUKE ZUK?[/typography]

Edo hobe esanda, zer egingo duzu ETZI egoera hori ematen denean?

Ikus bideo hau, inspirazio modura: <https://www.youtube.com/watch?v=NXB6slJSbL4>

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)
- [Click to email this to a friend \(Opens in new window\)](#)